XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

3653

147/2011 DEKRETUA, uztailaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011ko ekitaldiko aurrekontuko 9311 programan («Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak») eta 9211 programan («Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak») diru-sarrerak lortu direla-eta, 4222 programan («Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta 4226 programan («Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza») 173.400,63 euroko kredituak gaitzen dituena.

26.051,80 euroko diru-sarrera gehigarriak lortu dira; nondik eta, Euskal Autonomia Erkidegoak Leonardo da Vinci proiektu batzuetan –E-Decom, Valguinet eta Entrepreneurschool– parte hartzetik; izan ere, proiektu horietatik, 4.502,80 euro, 13.995 euro eta 7.554 lortu dira, hurrenez hurren.

Era berean, 77.458,50 euroko diru-sarrera gehigarria jaso da, hain zuzen, «EAEn bizitza osoko ikaskuntza sustatu» proiektua garatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Europako Batzordeko Agentzia Exekutiboarekin hezkuntzaren, ikus-entzunezkoen eta kulturaren arloan izenpetutako lankidetza-hitzarmenaren bidez; halaber, Europako Batzordeak finantzatutako «Lifelong Learning Programme Sub-programmes. Multilateral Projects, Networks, Accompanying measures» azpiprogramako Creanova proiektuagatik 9.641,00 euro jaso dira.

Azkenik, 60.249,33 euroko diru-sarrera gehigarria eskuratu da Hezkuntza Ministeriotik, Euskal Autonomia Erkidegoak Spainskills eta Wordskills lehiaketetan parte hartzeagatik sortutako jarduerak finantzatzeko.

Goian aipatutako kredituak, 173.400,63 eurokoak, gaitzea eskatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Horregatik, kredituok gaitu egingo dira, irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoari jarraituz gaitu ere; dekretu horren bidez, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onartu zen.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko uztailaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	4.502,80

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	4.502,80

Leonardo da Vinci Proiektuan (E-Decom) partaidetza izatea finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	441.99	4.382,73
4222	445.00	7.255,55
4222	454.01	2.356,72
	Guztira	13.995,00

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	13.995,00

Leonardo da Vinci Proiektuan (Valguinet) partaidetza izatea finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

3. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	7.554,00

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	7.554,00

Leonardo da Vinci Proiektuan (Entrepreneurschool) partaidetza izatea finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

4. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4226	238.99	77.458,50

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	77.458,50

«EAEn bizitza osoko ikaskuntza sustatu» proiektuaren garapena finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

5. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	9.641,00

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	9.641,00

Creanova proiektuan partaidetza izatea finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

6. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	60.249,33

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	431.00	60.249,33

Euskal Autonomia Erkidegoak Spainskills eta Wordskills lehiaketetan parte hartzeko sortutako jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 5ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.
Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.